



Sr. / Sra. **NOMBRE Jn./And.**

DIRECCIÓN

POBLACIÓN

Jaun/andre hori:

Estimado/a Sr./Sra.:

NPBk ekoizpen-azpisektoreei (zereal, olio-ale, aletarako lekadun, oliba-olio, tabako, haragitarako behi-azienda, esnetarako behi-azienda, ardi- eta ahuntz-azienda) ematen dizkien laguntzak 2013. urtera arte arautuko dituen ordainketa bakarreko erregimen berria jarriko da indarrean 2006ko urtarrilaren 1ean.

El próximo 1 de enero de 2006 entrará en vigor el nuevo Régimen de Pago Único por el que se registrarán hasta el año 2013 las ayudas de la PAC a determinados subsectores productivos (cereales, oleaginosas, leguminosas grano, aceite de oliva, tabaco, vacuno carne, vacuno leche, ovino y caprino).

Oinarrizko alderdiei dagokienez, Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduak arautzen du erregimen berri hori. Erregimen berriak ezartzen du lehenengo onuradunak izango direla aipatutako ekoizpenetarako zuzeneko laguntzak 2000, 2001 edo 2002an izan zituzten nekazariak (oliba-olioaren kasuan 1999. urtea ere kontuan hartuko da).

Este nuevo Régimen, regulado en sus aspectos básicos por el Reglamento (CE) nº 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, establece que los beneficiarios iniciales del mismo sean aquellos agricultores/as que tuvieron ayudas directas durante cualquiera de los años 2000, 2001 y 2002 por alguna de las producciones mencionadas (en aceite de oliva también se contempla el año 1999).

Administrazio honetako datuen arabera, zuk laguntza eskatu eta jaso zenuen aipatutako urteren batean, ustiategi honetarako:.....(erregistro-zk.). Alabaina, ustiategi horretako beste eskatzaile eta onuradun batzuk ere badaude denbora-tarte horretan bertan.

Para esta Administración Vd. figura como solicitante y beneficiario/a de ayudas durante alguno de los años del periodo de referencia citado, en relación con la explotación(nº de Registro), si bien para esa misma explotación también figuran otros solicitantes y beneficiarios en el mismo periodo.

Zu ez zarenez agertzen ustiategiaren titular gisa, idatzi honekin jakinarazi nahi dizut ordainketa bakarreko erregimen berriari lotutako ordainketa- eskubideen behin-behineko esleipena ustiategiaren titularrari/titularrei egin zaiola/zaiela; zure kasuan honako honi/hauei: jauna(k)/andrea(k). Horri/horiei behar bezala jakinarazi zai(zki)e behin-behineko esleipenari buruzko datuak.

Como quiera que Vd. no figura como titular de dicha explotación, sirva la presente para comunicarle que la asignación provisional de derechos de pago ligados al nuevo régimen de Pago Único, se ha realizado en la persona/s que figuran como titular de esa explotación, en su caso: D/Dª....., a quien se le/s ha comunicado debidamente los datos correspondientes a dicha asignación provisional.



NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA
*Nekazaritza eta Abeltzaintza
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE
AGRICULTURA Y PESCA
*Dirección de Agricultura
y Ganadería*

Esleipenarekin ados ez bazaude, alegazioak jartzeko aukera izango duzu, eskutitz hau jasotzen duzunik bi hilabeteko epean. Alegazioetarako inprimakia zure eskualdeko nekazaritza-bulegoan eska dezakezu.

Besterik gabe, jaso ezazu agur bero bat.

Vitoria-Gasteiz, 2005ko ekainaren 7a

Fdo.: José Antonio Ocio Orive
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA ZUZENDARIA
DIRECTOR DE AGRICULTURA Y GANADERÍA

En caso de no estar conforme con esta asignación, podrá realizar las alegaciones correspondientes en el plazo de dos meses a partir de recibir esta carta, solicitando el formulario oportuno en su Oficina Comarcal Agraria.

Sin otro particular, reciba un cordial saludo.

Vitoria-Gasteiz, 7 de junio de 2005